

B

BARREN

Akabo mozorro jaia!



bozkatu  EAI PNV
Jakin eta egin



barretxe

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

eragin
eta
aldatu



Dani Mozzu

Aintzane Ezemoro

Mikel Basabe

www.aralar.net

bozkatu



aralar

< ezkerreko **alternatiba** abertzalea

Sobreseimendua

Joan den astean bete ziren sei urte *Euskaldunon Egunkaria* itxi zigutenetik. Sei urte euskarazko egunkaria kioskoetatik desagerrarazi zutela, eta beste horrenbeste beteko ditu haren tokia hartu zuen *Berria*-k. Periodikoa erostera joan eta euskarazkoa ere hortxe daukagu, eskura, koloretan eta beste guztien pareko itxurarekin, eta badirudi ez dela ezer gertatu. Baina urteurrenak gogora ekarri digu auzibidea oraindik ere zabalik dagoela. Ez hanka ez bururik ez duen auzia, fiskalaren akusaziorik ere ez duena. Damoklesen ezpata fede oneko hainbat lagun buruen gainean.

Aurtengo urtemugan auzia behin betiko ixteko eskaria plazaratu da berriro ere. *Euskaldunon Egunkaria* auziaren artxiboa. Auzibidea bertan behera uztea. Zorioneko sobreseimendua. Joan Mari Torrealдай auzipetuak esan duen moduan, azkena izango ahal da aurtengoa!

Bien bitartean, kantak dioen moduan, *denborak aurrera etengabian*, eta otsailak ere eman ditu bereak. San Blasak jaten hasi genuen batzuek zezeila esaten dioten hilabetea, eta krisiaren aurpegi zatarrari mingaina atera eta inauterietan amaitu dugu. Tartean

santa-eskean ibili gara, O-23a ekarri digute gogora, intsumisioaren 20. urteurrena bete da, eta, esan bezala, beste urtebete igaro da *Euskaldunon Egunkaria* itxi zigutenetik. Urteko hilabeterik motzena izan arren, jai, ospakizun, eta urteurrenetan ez du parekorik. Ala bai? Ate joka dugun martxoaren 1ean ere badirudi ez datorrela makal. Hasiera, behintzat, ez da edonolokoa izango, hauteskondeekin estreinatuko dugu etzi hilabetea...

Montse Arregi



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Aurtengo urtemugan auzia behin betiko ixteko eskaria plazaratu da berriro ere"

**ELGOIBAR ETA MENDAROKO
EMAITZAK DOMEKA GAUEAN**

**LEGE BILTZARRERAKO
HAUTESKUNDEAK
MARTXOAREN 1ean**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

**ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA**



AMAIA NOGUERO

KONTSUMITZAILEAREN BULEGOKO LANGILEA

“Kontsumitzaileak eskubideak betetzeko eskatzen du, eta hori egin behar da”

Elgoibarko mekatu plazan, fruta eta haragia erosteko aukera dago. Baina plaza barruan beste zerbitzu bat ere badute elgoibartarrek: Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa. 1988ko otsailean jarri zuten martxan estreinakoz, eta kontsumitzaileek erreklamazioak egiteko edo informazioa jasotzeko puntua da. Amaia Noguero da bertako langilea, eta berak azaldu duenez, azkenaldian argiak eta gasak sortzen dituzte kontsulta gehien.

Edurne Burgaña

Zer gaik sortzen ditu kontsulta gehien?

Aurtengo urtarilean, gas naturalaren inguruan informazio eske etorri da jende asko. Natur Gas hilero kobratzen ibili izan da eta orain fakturak bi hiletik behin bidaltzen dituzte. Negua oso hotza izan denez, faktura handiak iritsi zaizkie elgoibartarrei, eta jendea informatzera etorri da faktura ondo zegoen ala ez jakiteko.

Iberdrolak ere aldaketak egin ditu fakturan, eta horrek ondorioak ekarri ditu.

Iberdrolak Gas Naturalen kontrakoa egin du: orain arte bi hilero bidaltzen zituen fakturak eta aurtengo neguan hilero bidatzen hasi da. Urtarrileko fakturan kalkuluan estimazioa egin zuten: hau da, ez ziren joan etxez etxe kontadoreak ikustera. Aurreko hileko gastuaren batz bestekoa kalkulatu egin zuten hori. Beraz, erreala ez zen kilowatt kopurua kobratu zituzten. Otsaileko fakturan, irakurketa erreala egin zuten, eta urtarilean kobratu gabe geratu zen kopurua ere kobratu dute. Faktura ezberdina iritsi da otsailean, eta jende asko etorri da, ondo dagoen ala ez ikustera. Momentuz, ez dugu gaizki dagoen fakturarik ikusi. Baina negu oso hotza izan da, urtarilean kobratu gabekoa ere sartu dute otsaileko fakturan, eta gainera prezioa ere altxatu egin da. Beraz, sekula baino gehiago ordaindu behar izan da otsailean.

Zer egin daiteke Iberdrolako faktura dela-eta?

Faktura azaltzeaz gain, kontadorea begiratu dezakegu irakurketan akatsen bat egon den ikusteko. Irakurketa ondo badago, etxeko tresna elektrikoak itzali eta kontadorea ondo dabilen ikusi behar da. Hala ere, kontadorea gaizki dabilela pentsatuz gero, Eusko Jaurilaritzako Industria Sailak egiaztatu dezake kontadorea; baina tasa batzuk daude, eta kontadorea ondo badabil, kontsumitzaileak ordaindu behar ditu. Baina orain arte eduki ditugun kontsultak informatzeko izan dira: otsaileko faktura ulertzeko zaila delako.

Gasarekin lotuta, gasaren errebisioaren inguruan ere galdera asko eduki dituzu...

Iaz eta aurtengo jende mordoak etorri zait galdera bera egitera. Legez gas naturalaren instalazioa lau urtero aztertu behar da. Natur Gasek eskutitz bidez jakinarazten dizu, eta teknikoak bidali. Hor ere aldaketa egon da: orain arte azterketak doan ziren, eta orain tasak jarri dituzte. Beraz, azterketa egin eta fakturan sartzen dute gastua. Bestalde galdararen

azterketa bi urtetik behin egin behar da: Eusko Jaurilaritzako Industria Sailak erregulatzen du eta kontsumitzaileak berak aukeratu dezake azterketa zein enpresak egin.

Eta iaz zer gai kontsultatu zen gehien?

Orain dela urte asko etxebizitzaren salerosketak sortzen zituen kontsulta gehien, eta azken urteotan telekomunikazioa izan da: bai telefonia mugikorra, bai telefonia finkoa ere. Baxa, alta, fakturazioa... denetik galdetzen dute. Batez ere telefonia mugikorraren gainean galdetzen dute. Baina finkoari dagokionez ere, galdera asko dituzte kontsumitzaileak: Interneten eta zigorren ingurukoak gehienbat.

Zein eratako jendea etortzen da kontsumitzaileen bulegora?

Adin guztietako jendea etortzen da, eta adin ezberdinak jendeak kontsulta ezberdinak egiten ditu. Nagusi asko etortzen dira faktura irakurtzeko orduan arazoak edukitzen dituztelako, eta gazteek telefonia

mugikorraren bermeen inguruan galdetzen dute. Baina urte amaieran ezin da esan gehiengoa jende nagusia ala gaztea izan den.

Krisiak eraginik eduki du kontsultetan?

Jendeak gero eta gehiago begiratzen ditu fakturak, baina ez bakarrik zenbateko altua denean; hiru euro direnean ere, kontsumitzaileak ez du ordaindu behar hori, eta erreklamatu egiten du. Kontsumitzaileak eskubideak betetzeko eskatzen du, eta hori egin behar

da. Gainera, azken urteotan, jendeak zerbait erosi aurretik, eta arazo bat eduki aurretik, informazioa eskatzen du. Krisiak eragina badu, baina faktore gehiago ere eduki behar dira kontuan.

1988 urteko otsailetik dago bulegoa Elgoibarren. Herritarrek erabiltzen dute?

Elgoibartar asko etortzen dira, eta baita Mendaro eta Debatik etorritakoak ere. Hainbeste urteren ostean, elgoibartarrek badakite kontsumitzaileen bulegoa non dagoen, eta zertarako balio duen; baina urtero etortzen da norbait lehenengo bider. Beste herritar batzuk edozein zailantza dutenean etorri egiten dira. Baina urtetik urtera jende kopurua gehitzen doa, eta batez ere kontsultak egiteko etortzen dira.

Bulegora etorri nahi duenak zein ordutegitan etorri behar du?

Asteleheneetik barixakura 9:00etatik 13:00etara egoten da zabalik bulegoa, eta telefonoz ere egin daitezke kontsultak, 943 743 088 zenbakira deituta. Erantzungailua daukagu, eta, mezua utziz gero, deia bueltatzen dugu.

“Nagusi asko etortzen dira faktura irakurtzeko orduan arazoak edukitzen dituztelako”

2008KO KONTSULTAK

JOANDAKO PERTSONA KOPURUA

- Informazio eske.....	587
- Erreklamazioak.....	57

GUZTIRA..... 644

ERREKLAMAZIOAK

- Telekomunikazioak.....	37
- Elektrokoak.....	8
- Gas Naturala.....	2
- Ehungintza.....	3
- Gremioak.....	1
- Bankuetxeak.....	1
- Merkataritza elektrikoak.....	1
- Bidaia agentziak	1

GUZTIRA..... 57



Greba eskubidea ezbaian



MEKako ikasleek mobilizazioak egin dituzte, tartean irudikoa.

Mekanikako ikasle batzuk euren greba eskubidea defendatzeko borrokan dabiltza. Ikasleek diotenez, zuzendaritzak oinarrizko eskubide hori urratu du bere jarrerarekin. Gaiaz sakonago berba egiteko batu da BARREN institutuko zuzendaritzarekin eta Leire Iruretagoiena ikaslearekin. Itziartarra da Iruretagoiena, baina Elgoibarko institutuan ari da ikasten.

Edurne Burgaña

“Guk hartutako erabakia errespetatzeko eskatzen diogu zuzendaritzari”



LEIRE IURETAGOIENA

Ikaslea

Zuzendaritzak ikasleoren greba eskubidea urratu duela diozue.

Ikastetxean deialdi bat sartzen denean, zuzendaritzaren fitrotik pasatu behar da, eta zuzendaritzak bere argumentuen arabera erabakitzen du deialdiak aurrera egin ala ez. Orain arte, kasu gehienetan ezetza eman du, eta guk zuzendaritzak hartutako erabakiaren arabera bozketa egiten dugu edo ez. Ikasleok gara greba egin behar dugunak, eta deialdi bat sartzen denean, eragileek zuzenean

ikasleei ematea eskatzen dugu; zuzendaritzaren fitroa eduki gabe. Eta guk hartutako erabakia errespetatzea eskatzen diogu zuzendaritzari.

Eta zeintzuk dira deialdiak ez onartzeko arrazoiak?

Zuzendaritzak dio deialdia komunikabideetan agertzen ez bada ez dutela onartuko. Baina baldintza hori ez da inon agertzen: ez dago inon idatzita. Eurek asmatu duten fitro bat da, ikasleok edozein arrazoiengatik greba ez egiteko. Baina askotan komunikabideetan agertzeak ez du esan nahi garrantzi handiago edo txikiago daukanik. Adibidez, irailaren 26an, Gudari Eguna zela-eta deitu zen greba, eta ikastetxean geldialdia konbokatzen zen. Erantzuna ezezkoa izan zen, nahiz eta guk aurrera jarraitu grebarekin. Azaroan 6an, gazte independentistek mobilizazio eguna deitu zuten ordura arte gazteak bizi izaten ari ziren jazarpenak salatzeke, eta baita Hernanin urriaren 31ko Independentzia Egunean ertzainek eduki zuten jarrera salatzeke: eskualde honetako neska bat jipoitu zuten han. Baina zuzendaritzari ez zitzaion

nahikoa iruditu. Bestalde, urriaren 17an *Es-kolak Euskaldundu*-ren inguruan deialdia egin zen komunikabideetan, eta bagenekien zuzendaritzak greba egitea onartuko zuela, baina euren jokoan ez sartzea erabaki genuen. Beraz, deialdia sartu gabe zuzenean kalera irtetea erabaki genuen.

Zuzendaritzak zuekiko duen jarreragatik ez omen zaretela helduak ere esan duzue...

Azken batean zuzendaritzak erabakitzen du guretzako zerk daukan garrantzia eta zerk ez, eta gainera gauzak zelan egin ere esan izan digute. Noiz edo noiz esan digu zuzendaritzak “zergatik ez duzue egiten kontzentrazioa jolas orduan?”. Zuzendaritzak esan behar digu borroka zelan egin behar dugun? Azkenean guk greba egin nahi badugu, greba egingo dugu, eta ez kontzentrazio bat.

Zelako jarrera dauka zuzendaritzak zuekiko?

Hasieran isilarazi egin nahi gintuzten: deialdi bat zegoenean kartelak kendu, ez utzi gelaz gela pasatzen... baina azkenaldian jasan duten presioaren ondorioz, errespetatzea ekarri du, eta kartelak ez dituzte kentzen. Baina bertiko jarrerarekin jarraitzen dute.

Klasez klase ikaskideak informatzera joan eta zuzendaritzak mehatxu egin dizuela ere esan duzue.

Azaroaren 6an deialdi bat zegoen eginda eta berriz ere zuzendaritzak ezezkoa eman zuen. Orduan bi ikasle hasi ziren klasez klase pasatzen eta kartelak jartzen: ezezkoa eman arren, aurrera egin eta kalera ateratzeko asmoa geneukan. Zuzendaritza atzetik joan zitzaizen kartelak kentzen, *txakurrak* izango bailira moduan, kristoren amorruekin, eta klasez klase pasatzen ari zirela ikusita, kanporatu egingo zituztela mehatxu egin zien. Gainera, gurasoekin bilera bat egin zuten bi ikasle zehatzen inguruan hitz egiteko.

Greba orokorra egin zenuten otsailaren 3an, zelako erantzuna eduki zuen?

Zuzendaritzak azpijokoa egin zigun egun horretan. Astebete lehenago sartu genuen deialdia, eta zuzendaritzak gurekiko eduki zuen jarrerarekin, ikasleak popatik hartzera bidali zituen, seguru geunden greba ez zela baimendua izango. Baina greba aurreko egunean, azken orduan, kasualitatez enteratu ginen hurrengo egunean bozketa egingo zela. Ikasleen zati handi batek pentsatuta zeukan ikastetxera agertu ere ez egitea. Bozketa egin zenean, gehiengoak baiezkua bozkatu zuen, baina ez zen bete %70eko partaidetza, eta zuzendaritzak ez zuen baimendu.

Hala ere ikastetxearen gehiengoak kalera irten zen, eta herritarrak informatzen ibili ginen; gure egoera zein den zabaltzen.

Egoera ikusita, bame araudia aldatzeko proposamenak jasoko ditu zuzendaritzak.

Eskolako araudia aztertuta, ikusi dugu ez dela batere zehatza: irakurketa ezberdinak egin daitezke, eta urraketa hor dagoela uste dugu. Ikasle Abertzaleak taldeak beste proposamen bat egin du bermatzeko ikasleak izango direla erabakia hartuko dutenak eta zuzendaritzak errespetatu egingo duela. Proposamena zabaldua dago, orain ikasle, guraso eta irakasleei zabaltzea nahi dugu. Eta gero eramango da eraman behar den tokira.

“Eskolako araudia aztertuta ikusi dugu ez dela batere zehatza, eta urraketa hor dago”

ZUZENDARITZAREN IRITZIA

Elgoibarko Mekako ikasleek greba eskubidea urratu zaiela diote. Hori dela eta, Mekako zuzendaritzak azalpenak eman nahi izan ditu. Elgoibarko institutuko barne araudia 1996 urtean eskola kontseiluak onartutakoa da, eta 1994ko ikasleen eskubide eta betebeharren dekretutik dator. 2008an beste dekretu bat idatzi dute eta sei hileko tartea dute aldaketak proposatzeko. Aldaketak egitea proposatu du zuzendaritzak, eta horretarako laguntza eskatu die ikasleei. “Baina orain arte, hamabi urtean ez dugu inolako arazorik eduki”, azaldu du LHko zuzendaria den Jose Mari Beristainek.

Barne araudi horren arabera, greba deialdia egiten denean, bozketan ikasleen %70ek hartu behar du parte. “Azken greba deialdian gutxieneko horrek ez zuenez parte hartu, bozketa baliogabea zen. Baina horrek ez du esan nahi greba egin nahi zuen ikasleak ezin zuenik egin: berdin-berdin egin zuten greba”, azpimarratu du Beristainek.

Ikasleen esanetan, ikaskideei grebaren nondik norakoak azaltzera joan izan direnean mehatxatu egin ditu zuzendaritzak. “Bilera egin genuen deialdia egin zutenekin, eta esan zuten gelaz gela joango zirela informatzera. Faborez hori ez egiteko eskatu genien, baina irakasleak etorri ziren esanaz gelara sartzen zirela. Gelaz gela joan nahi zuten, gela orduetan, ate joka, eta ez genien utzi. Guk beste proposamen bat egin genien: gela eta gela arte-

ko bost minutuetan ikastetxeko megafonia erabilita ikasleak konbokatzeke aukera eduki zuten, eta jolas orduan areto nagusia euren esku utzi genuen azalpenak-eta emateko. Baina ez zuten nahi izan. Klaseak nola edo hala moztea zen nahi zutena. Baina guk, zuzendaritzak, ikasleek klasera joateko duten eskubidea bermatu behar dugu”.

Deialdi zabala izan behar da greba egiteko arrazoia izateko. “Deialdi zabala ulertzen da komunikabide batean

agertzen dena. Zuzendaritzak ikusten badu deialdi zabala dela, ikasleek falta hori justifikatuta daukate: greba hori debaldekoa da. Baina zuzendaritzak ikusten badu greba horrek ez duela inolako oinarririk, eta ez bada ontzat ematen, ikasleak greba egiten du eta piper egin izan balu bezala zenbatzen da”, argitu du LHko zuzendariak.

Egoera ikusita, zuzendaritzak bost edo sei ikastetxeren barne araudia hartu eta ikasle guztiei azaldu zien gainerako herrietako egoera zein den. “Bilera horren ondoren, gela ba-

koitzean proposamen bat aurkezteko eskatu genien eta ikasleen eta irakasleen artean proposamen bat aurkeztea da helburua. Bi alderdien artean adostutako proposamena. Hala ere, gauza bat argi daukagu: greba egiten denean zerbait aldarrikatzeko izan behar da, eta trukean zerbait emateko prest egon behar da”, esan du Beristainek.

“Greba ez bada ontzat ematen eta ikasleak greba egiten badu piper egitea da”



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Jakin eta ez egin!!!

Espainiar gobernuak apustu argia egin du herri honetako sektore oso bat ezabatzeke, eta apustu hori bururaino eramateko beharrezkoak dituen tresna guztiak erabiltzeko prest dagoela ondo baino hobeto erakutsi du azken hilabetee-tan, eta bereziki azken egunotan.

2009. urteko otsailean gaude, eta Euskal Herrian 2 alderdi politiko ilegalizatu dituzte. 2009 urtean sartu gara eta 62 tortura salaketa utzi dizkigu atzean utzi dugun urteak. 2009 urtean, ordezkari politikoak atxilotu eta espetxeratu dituzte Euskal Herrian, manifestazioak debekatu eta gogor erasotu. 760 euskal preso politiko espainiar nahiz frantziar espetxeetan sakabanaturik daude. Espetxean dituzte minbizi larria duten euskal preso politikoak, eta biziarteko zigorra ezarri dute praktikan. Errepresioa da herri honi eskaintzen diotena, eta errepresioaren fronte guztiak dituzte irekiak.

PSOEren gobernuak ezarri du salbuespen egoera hau, baina erantzukizunak ez dira guztiak bereak. Bortxakeria mota batzuen aurrean eskubide guztien defendatzaile moduan agertzen diren horiek beraiek dira egoera honen aurrean itsu, mutu eta gor agertzeaz gain, bere ekarpen propioak ere egiten dituztenak. Guzti honek biolentziaren inguruan dagoen benetako hipokrisia erakusten digu. Biolentzia nondik datorrenaren arabera politikari askoren jarrera asko aldatzen baita. Jakin badakigu errepresioa antzua dela bilatzen dituen helburuekiko. Euskal Herriak gatazka politiko gogor bat bizi du,

eta jakin badakite gatazka politikoak ez dira espetxeekin, torturekin, legez kanporatzeekin, jarraipen polizialekin, errepide kontrolekin, espioitzarekin, sakabanaketarekin eta hauteskunde antidemokratikoe-kin konpontzen. Gatazka politiko hau ez da inola ere errepresio gehiagorekin konponduko, elkarriketa gehiagorekin eta demokrazia gehiagorekin baizik.

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimendua

Demokrazia zero!

Maiatzean bi urte beteko dira udal hauteskundeak izan zirenetik, eta martxoaren lehena gainean dugun honetan, gogoeta zenbait zabaldu nahi genituzke. Elgoibarren ondo baino hobeto ezagutzen dugu zer den demokrazia eza, ez da alferrik herritarren hitza errespetatzen ez den bigarren legealdia. Egoera guztiz surrealista bitiztea tokatu zaigu, tartean EAE-ANV legez kanporatzearen aurka onartutako mozioa. Gu baztertu eta isilarazten gaituztenak (pleno hartan ere ez ziguten parte hartzen utzi) aurpegia garbitu nahian ibili dira berriz bukatzen ari den kanpaina honetan.

Mila oztopo eta putreren gainetik, Ezker Abertzaleak hauteskunde hauetan egongo zela hitz eman zuen eta lan horri ekin zion, eta kartzelarekin ere ordaindu duk. Gu desagertaraztea helburu dutenek ordea, berriro ere kale egin dute eta alperrik saiatuko dira kartzelarazteekin, bozka paperak lapurtzen, ekitaldiak zapuzten, medioetan boikota egiten eta gu abstenziora bideratzen. Ezker Abertzaleak, horri

guztiari, lan politiko gehiagorekin erantzun dio, lan militante gehiagorekin eta konpromiso gehiagorekin. Diru iturri bakarra herritarren elkartasuna izanik ere, urrez bete dira Elgoibarko postontziak.

Aldaketaren atarian gauden honetan, argi daukagu aldaketa hori nolakoa izatea nahi dugun: Gatazka gaintutako duen marko baterantz, aukera guztiak defendatu eta egingarri izango diren marko baterantz, herri honi independentziaren aukera irekiko dion marko baterantz. Tamalez, beste kontu klase batzuk egiten dabilta besteak. Bide horretan lan asko daukagu egiteko eta igandean bultzadatxoa ematera goaz. Urrezko botoak prest daukagu. Bete ditzagun hautestontziak urrez.

Iñaki Odriozola, Itziar Ibabe eta Iñaki Bengoetxea (hautetsi independentistak)

Eskerrik asko

Elgoibarko herriari Ize Libururudenda-ko Ankas eta Ainhoek inauterietako egun guzti hauetan gugan izan duen jarrera aparta eskertu nahi diogu. Mila esker, bihotzez, Errosario kaleko bizilagun eta langileei, beraien pazientzia eta animoen-gatik. Hala ere, norbait gaizki sentiarazi badugu, barkatu, gure intentzioa zuen aurpegieta irribarre bat eragitea izan da-eta. Era berean, ezinbestekoa da hau guztia posible egin duen pertsonari esker-rik ematea: Elgoibarko udaltzainen sar-jentuari eskerrik asko, baimenekin lagun-tzeagatik eta *lan-jolas-erokeria* hau errez-teagatik. Besterik gabe, mila esker, Elgoi-bar, eta hurrengora arte.

Ainhoa Castrillejo eta Angel Lopez


Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Noemi Otegi

Jada gainean ditugu inauteriak, ez naiz ni oso mozorrozalea, baina urte batzutatik hona gertatu zait hori niri!

Lehen urtero-urtero joaten nintzen Tolosako inauterietara, baina ohitura hori galdu nuenetik, uste dut ez naizela berriro inauterietan mozorrotu. Akaso, niretzat inauteriak eta inauteri sena Tolosarekin egongo dira ertsiki lotuak. Hala ere, oso deigarria iruditzen zait, zer-nolako mozorroak aukeratzen ditugun.

Badira batzuk apain eta polit ipintzen direnak inauterietan, besteak berriz itsustea bilatzen dute mozorroekin, edo animalia jazten direnak ere badira; monja eta apaizak ere tipikoak dira, eta, nola ez, gizonezko askok eta askok duten ohitura kuriosoa, emakume janzteia, alegia.

“Bitxia, benetan, zenbat diren emakumez mozorrotutako gizonak”

Bitxia, benetan, zenbat eta zenbat diren emakumez mozorrotutako gizonezkoak inauterietan. Hori bai behar-beharrezkoak dituzte zenbait gauza: batetik, ezpainak gorri-gorri margotuta; bestetik, dudarik gabe ezin irten sekulako titi pare jarri gabe, berdin du laranjekin edo galtzerdi piloakin, baina titiak halaberrez handiak behar dute izan, eta, noski, gona motza! Ibiltzean ipurdia ezker eskuin mugitzen dute, muturrak ia-ia arpegitik kanporaino aterata keinuka, eta gona gerritik gora igota! Sekulako dudak izan ohi ditut tankera horiek ikusita: izan daiteke, nahiz eta ni ez konturatu, emakumeak horrela goazela kaletik, edo gizonezkoek gustatuko litzaiekeela gu horrela joatea! Zein da zure iritzia? Zer esango luke Freudek?



Ainara Sedano

Bueno! Freudek ez dakit zer esango lukeen. Ez naiz ni oso jakituna filosofia gaietan, baina nire pisukide izan zen Itzik badakit zer esango lukeen, mutilak, egia da, inauterietan penagarri ateratzen direla askotan, ez beti, baina askotan; gona zahar zatar handi bat, haragi koloreko galtzerdiak, meloien moduko titi pare itzela, kiribildun peluka ilehoria, begiak kolore bizizko itzal mordokaz margotuta, eta ezpainak gorri-gorri eginda. Eta zertaz doan mozorrotuta galdetuz gero... “neska jantzita”, erantzuten dute pozik. Itzik esango lukeen bezala, “neskak egunero kalera piura horrekin aterako bagina bezela!”

“Ostrukaz disfrazatu beharko dut, errekuperatu bitartean”

Ni, egia esan, inauteri zalea izana naiz, batez ere inauterietako astearte zalea, baina azken urteotan kale egin dut urtero. Eta aurtan atera naiz zapatuan, baina azken orduko plana izan da, eta lagun batek eskainitako bibote iletsu zatar eta txapel bat besterik ez ditut jantzi. Kale! Baina parranda polita egin dut, eta lagunekin ondo pasatu izanaz pozik, berdin zait neska, mutil, polit edo zatarrez mozorrotu badira. Ondo pasa dugu elkarrekin eta horretarako aitzakia inauteriak izan badira, gora inauteriak! Eta hurrengo urterako ea pixkat gehiago prestatzen dugun mozorroa, horrek hobeto pasako dugula esan nahi ez badu ere.

Orain, parranda osteko gorputz kaskarrarekin, aste bitartean ostrukaz disfrazatu beharko dut; burua lurrazpian ezkutatu eta ea inork ez nauen ikusten errekuperatu bitartean!



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Loreak erosteko aukera ere egongo da hilabete honetako azken zapatuko ferian

Erosleen artean martxoko kultur ekintzetarako sarrerak zozketatuko dituzte

Hileko azken zapatuko feria berrikuntzekin dator otsailean, eta ohiko produktuez gain, loreak erosteko aukera ere egongo da bihar. Gainera, azokako postuetan produktuak erosten dituzten herritarren artean, martxoan Herriko Antzokian egingo diren kultur ikuskizunetara doan joateko bi sarrera zozketatuko dituzte.

Egitaraua

Goizeko 9:00etatik aurrera, baserriko produktuak saltzeko postuak egongo dira Nafarroa Plazan. Lizundia Txabola, Zabaleta, Arrasketa, Eguen Txiki eta Pagoa loradenda bertan izango dira. Mausitxa baserrikoak ez dira egongo, neguko hilabeteetan gaztarik ez dutelako edukitzen. 13:30ak arte egongo da erosketak egiteko aukera.

Bestalde, 11:00etan ganadudunek euren animaliak erakutsi eta salgai ipiniko dituzte. Trikitilariak arituko dira giroa alaitzen.

Baserriko produktuak merkaturatzea

Hileko azken zapatuko feria Udalak eta Debemenek antolatzen dute elkarlanean.



Baserriko produktuak sustatu eta merkaturatzea da azokaren helburua, eta antolatzailerak herritarrek animatu nahi dituzte azokan parte hartzera. Datozen hilabeteetan ere postu berriak ipintzea da antola-

tzaileen asmoa, eta gogoratu nahi dute, norbaitek hileroko azokan parte hartzeko interesa baldin badauka, Debemen elkartera deitu dezakeela izena emateko (943 744 067).

Gabonetako zozketaren sariak banatu ditu Txankakuak



Txankakua merkatarik elkarrekin Gabonetako zozketako sariak banatu ditu. 1.800 euro eman ditu saritan. Hauek izan dira irabazleak:

- Marian Astigarraga.....500 euro
- Xabier Esnaola.....500 euro
- Elena Agirre.....100 euro
- Juani Iriondo.....100 euro
- Kontxi Mugerza.....100 euro
- M^a Luisa Bernedo.....100 euro
- Nerea Juaristi.....100 euro
- Maialen Leiaristi.....100 euro
- Ana Isabel Marin.....100 euro
- Elena Barua.....100 euro

Irudia Errepidea Plaza Handian



Itxura bitxia izan du Plaza Handiak aste honetan. San Inazio kalea urbanizatzeko obrak direla-eta, trafikoaren norabidea aldatu behar izan dute, eta Plaza Handia errepide bihurtu dute. Lanak hiru astetan amaitzea aurrakusi dute Udaleko arduradunek, eta ordura arte, lan egunetan trafikoa Plaza Handitik eta San Bartolome kaletik bideratuko dute.

Berbia Berdintasuna

Abenduaren 22an onartu zuen Osoko Bilkurak berdintasun plana, eta dagoeneko hasi dira hainbat ekintza egiten. Gizarte eragileekin bilera egin, eta herriko emakumeekin lanean ari dira. Bestalde, martxoaren 8an emakumeen nazioarteko eguna dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte, Kultura Batzordearekin batera: hitzaldiak, ipuinkontaketak eta tailerrak egongo dira, besteak beste. Horrez gain, atzo egin zen Udal Plenoan emakumeen egunari lotutako adierazpen instituzionala onartu zuten.

Lekua Altzola

Altzolako auzoa hobetzeko lanak direla-eta, Udalak aparkaleku berria egingo du. Altzolabe baserri pareako berdegunean egingo dute, auzoko sarreran, hain zuzen ere. Udaleko arduradunek esandakoaren arabera, 30-40 auto ingururen-tzako lekua egongo da. Bide batez, auzoko sarrera-irteera hobetzeko azterketa egiten ari dira.



Udal euskaltegiaren bazkaria martxoaren 28an

Udal euskaltegiaren 25. urteurrena dela-eta, bazkaria egingo dute martxoaren 28an Sigma jatetxean. Bazkalaurretik eta ondoren, gainera, "Bentazaharreko mutiko alaiak" musika taldearen ekitaldia izango da. Euskaltegiak ikasle eta irakasle guztiak, oraingoak eta aurreko urteetakoak, animatu nahi ditu ospakizun honetan parte hartzera. Bazkariaren prezioa 30 eurokoa da. Izena emateko, Elgoibar, Deba edo Mutrikuko euskaltegietara jo daiteke edo, bestela, 943 742731 telefonora deitu daiteke, martxoaren 6a baino lehen.

SMS zerbitzua Gazte Informazio Bulegoan

Intereseko hainbat gairen inguruko informazioa telefono mugikorrean, SMS bidez, edo posta elektronikoa jasotzeko aukera eskainiko du aurrerantzean Gazte Informazio Guneak. Besteak beste, bekak, etxebizitzak eta dirulaguntzen inguruko harpidetza egiteko, Udalaren web orriko datu-orria bete behar da. Norberak aukeratu ditzake intereseko gaiak, eta horiei buruzko informazioa jasoko du.

Gazte independentistek manifestazioa egin dute

Borroka Eguna izan zen Euskal Herrian otsailaren 19an, eta Elgoibarko gazte independentistek ere, manifestazioa egin zuten "Elgoibarko Gazteria lotu independentziara" lelopean. Gazteen eskubideak aldarrikatzeko manifestazioa egin zuten.



Domekan, martxoak 1, Gasteizko legebiltzarrerako hauteskondeak izango dira.

Zer eskatuko zenioke hurrengo lehendakariari?



Blanca Viña
36 urte, langabetua

Krisi egoerari aurre egiteko diru-laguntzak benetan behar duenari emateko eskatuko nioke. Ondo dago banketxeei dirua ematea Argentinan pasatu zena ez gertatzeko, baina, nire ustez, herritarrei eman behar zaizkie hipotekak ordaintzeko laguntzak.



Mayte Prieto
34 urte, kupoi saltzailea

Lanpostuak ziurtatzea eskatuko nioke alde batetik, eta, bestalde, zailtasun fisikoak dituzten pertsonentzako laguntza gehiago jartzea eskatuko nioke. Gaixoak eta gutxitu fisikoak zaintzeko zailtasunak izaten dira familietan, eta horretan ahalegin handiagoa egin behar da.



Felix Garcia
68 urte, jubilatua

Ez dakit, nire ustez dena ondo dago, bai Elgoibarren eta baita Euskal Herrian ere. Orain arteko egoerari eusten badio, ondo egingo duela iruditzen zait. Gauzak okerrera ez joatea eskatuko nioke, eta zeozer hobetzerik baldin badauka, askoz hobeto.



Rosendo Lopez
78 urte, jubilatua

Gazteentzako lana eskatuko nuke, enpresetatik jendea ez bidaltzea, eta jubilatuentzako, berriz, pentsioak handitzea. Aurten 2.000 pezeta altxatu didate pentsioa, baina jatekoaren prezioa askoz gehiago igo da. Horretarako hobe da ezer ez igotzea.

OSTEGUN BIDAIAIRIAK

<p>MARTXOAK 5: INTER-RAIL eta SANTIAGO BIDEA Hizlariak: Joanes Rodriguez, Ion Sanchez, Eñaut Izagirre eta Iokin Zubiaurre</p>	<p>MARTXOAK 12: OLATUZ OLATU: COSTA RICA, PANAMA eta MEXIKO Hizlariak: Aimar Lasa eta Deba Urizar</p>
<p>MARTXOAK 26: AMA AFRIKA (Maroko, Mauritania, Mali, Burkina Faso, Ginea Conakry eta Senegal) Hizlariak: Luisa-Montecelo eta Onditz Javregi</p>	<p>APIRILAK 2: DOLOMITETARA FURGONETA BIDAIA Hizlaria: Ane Garmendia</p>


Bidaiatzeko behar duzuna!

Ordutegia: 20:00 - 21:30
Lekua: Kultur Etxeko hitzaldi gela

INAUTERIAK ARGAZKITAN



Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoiBARREN.net
Manuel Salegik irabazi du Martinea nekazal etxean asteburuko egonaldia.
MILA ESKER ERRETRATUAK BIDALI DIZKIGUZUEN GUZTIOI!








Azkarateko errepide zaharrean norbaitek garagardo latak lagatzen ditu: "Azkarateko errepide zaharretik gora paseatzera joateko ohitura daukagu, eta azkenekoz joan gine-nean harrituta geratu ginen: norbaitek garagardo latak ipini ditu bide bazterrean. Ez dakigu arrazoi jakinen bat dagoen horrelakorik egiteko, baina niri ez zait batere gustatu. Zikin itxura ematen du, eta natura denon artean zaindu behar dugula iruditzen zait. Eskertuko nuke ohitura arraro hori hartu duenak latak zakarrontzira botako balitu".



Urasandiko bidean lorontzi bat hautsi zuten zapatu gauean: "Parranda gauak ondorio zatarrak laga dizkigu orain ere. Urasandiko bideko lorontzia hondatuta azaldu zen domeka goizean, eta ez da lehenengo aldia. Horrelakoak askotan gertatzen dira, eta denon artean herriko elementu guztiak zaindu egin behar ditugu. Azken batean, herritar guztiok ordaintzen ditugu honelako kalteak. Parranda egitea ondo dago, baina ingurunea eta herria errespetatu egin behar da".

Toletxegaineko tren geltokiko txartel makina hondatuta dago: "Toletxegaineko txartel makinak pantaila hondatuta dauka, eta ez da ondo ikusten. Donostiako bidai txartela hartu nahi nuen, baina Bilborako txartela irten zitzaidan, botioiak ez direlako ikusten. Eskertuko nuke hori konpontzea, mesedez.".



II.URTEURRENA



Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 1ean hil zen 42 urte zituela

*Kaixo Ramon,
ta memorian zure irria
ta memorian zure begiak
ta memorian zure keinua
ta memorian zure izatea
ta memorian bizi zaitugu
ta memorian zure aiduru
ta memorian zaitugu katigu
ta memorian zaitugu*

Etxekoak

*Bere alde II. urteurrenako meza izango da, zapatuan,
otsailak 28, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome Parrokian.*



KEVIN COSTNER JAMI BLUNKIN AND MICHAEL WICKLIWILLIAMS
BROKEBACK MOUNTAIN



3 DISKOKO BOSTEK BARRERAK
ONENARENEN BARRERAK

DVD

berriarekin

Munduko ZINEMA euskaraz



EKIALDEKO PROMESAK

DVD



Gizakien seme-alabak

DVD

BOST FILM:

*Brokeback Mountain
Ekialdeko promesak
Gizakien seme-alabak
Ezkutuko plana
Lorezain leiala*



2007. URTEA
GIZAKIAREN
AIZKEN EGUNAK
12. LA HAURRAK JAIO
DUELA 18 URTETIK AHOA
BERAK ZAIRODI BERAUR DI
GURE ITZAROTZEN BAZARRELA

DVD



EZKUTUKO PLANA

DVD



LOREZAIN LEIALA

DVD

Otsailaren **28**tik aurrera,
larunbatero, zure kioskoan **BERRI**arekin



berria

Egunean 11 emakumek salatzen dituzte
tratu txarrak, eta bostek babesu eskatu

+ **4,90€**

Harpidedunentzat, bilduma osoa 19,40€
Eskaria egiteko: 943-30 43 45

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**



PSE-EE, Ezker Batua eta EAJ alderdiak etorri dira hauteskunde kanpainan

Bihar erreflexiorako eguna izango da eta domekan egingo dira hauteskundeak

Bi asteren ondoren, gaur gauean amaituko da hauteskunde kanpaina, eta domekan, martxoaren 1ean izango dira Legebiltzarrerako hauteskundeak. Joan zen astean bezala, orain ere alderdi politikoaren presentzia igarri da herriko kaleetan. PSE-EE, Ezker Batua eta EAJ alderdiak aritu dira hauteskundeetarako propaganda banatzen.



Ezker Batuak otsailaren 19a aukeratu zuen Elgoibarrera etortzeko. Plaza Handian jarri zuten postua, eta bertan aritu ziren propaganda banatzen. Alderdiaren barruan desadostasunak egon dira azken aldian, eta hainbat afiliatuk alderdia laga dute, tartean, Unai Zulaika elgoibartarrak. Hala ere, Javier Madrazoren aldeko botoa eskatu zuten Ezker Batuko kideek. Kanpaina azaldutakoaren arabera, lana, babes ofizialeko etxebizitzak, emantzipazio eskubidea, genero berdintasuna, demokrazia, euskara, euskal eskola publikoa, eta bizilagunen eskubideak dira, besteak beste, alderdiak hartuko dituen konpromisoak.



PSE-EEko zinegotziak eta alderdiko hainbat kide, otsailaren 19an izan ziren Elgoibarren. Herritarrei larrosak banatu zizkieten, eta ondoren PSE-EEk Urasandin daukan egoitzan egin zuten ekitaldia. Patxi Lopezen aldeko botoa eskatu zuten, "aldaketaren aldeko boto bakarra" izango delako. Bestalde, Ovidio Campello Elgoibarko PSE-EEko zinegotzia 13. postuan joango da Gipuzkoako zerrendetan. Aukera gutxi ditu elgoibartarrak hautatua izateko, baina zerrendan joatearekin oso pozik dago. Herrian eta alderdian egiten ari den lanaren ordaina dela adierazi du sozialistak.



EAJ-PNV alderdiko kideak izan dira Elgoibarrera etortzen azkenak. Astelehenean, hilaren 23an, Plaza Handian aritu ziren EAJren eta Ibarretxeren aldeko bozkak eskatzen. "Ibarretxe, orain inoiz baino gehiago" lema erabili dute hauteskunde kanpaina, eta lehendakariaren bost ezaugarri azpimarratu dituzte. Euren esanetan, Ibarretxe kirisa gaintzeko lehendakaria, berdintasunaren aldekoa, demokrazia parte hartzailearen aldekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan mundura zabaltzen duen lehendakaria eta bakea lortzeko lehendakaria da.

Izas bailaran bide berri bat kateatu du Alberto Fernandez elgoibartarrak

‘Noctambulos’ deitu dio Alex Nicolasekin lortutako bideari



Irudian bi alpinistek kateatu duten bide berria.

Aurtengo negu gogorra aurrera doa, eta alpinismoak notizia on bat ekarri du. Egiten ari den hotzak ur jauziak izoztea ekarri du, eta Euskal Herriko alpinismoko talde gaztean dauden Alberto Fernandez elgoibartarrak eta Iruñeko Alex Nicolasek bide berri bat kateatzea lortu dute. Izan ere, eurek egindako bidea aurrez eginda zegoela erakusten duen frogarik ez daukate momentuz.

Notre Dame bidea egin ondoren bigarren pareta zuten parez pare Fernandez eta Nicolas alpinistek. Lehenengo luzean izotz fina eta mistoa aurkitu zuten: izotza haitz zatiekin nahastuta. Bigarren luzean artifizialeko teknika erabilita gainditu behar izan zuten irteera bat, misto zati bat zuen ibilbideko zati horrek ere. Bide berriari *Noctambulos* izena jarri diote. Zorionak biei.

40-15 tenis elkartearen eguna antolatu dute biharko

Elgoibarko 40-15 tenis elkarteak, bihar, zapatua, taldearen eguna ospatuko du. Goizeko 10:30ean hasita eskolako ikasleen artean txapelketa egingo dute. Arratsaldean, 16:30etik 18:00etara ikasle gazteenek jokatu dute, eta opari bana jasoko dute parte hartzearen. Mintxetako eta IMHko pistetan jokatu dituzte partidak eta herritarrei ikustera joateko deia egin die elkarteak.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 2 – Arenas 0 (Haundi)
 Elgoibar 2 – Mondragon 1 (1. erreg.)
 Elgoibar 0 – Lengokoak 6 (Kad.)
 Touring 1 – Elgoibar 3 (Txi.)

ARETO FUTBOLA

Elorrioko 2 – Kenci Elg. 2 (Nazional B)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle Elg. 21 – Urdaibai 21 (Sen. nes.)
 Zarautz 19 – Astigarraga Elg. 22 (Inf.nesk.)
 Lili Elg. 17 – Pulpo 10 (Inf. nes.)
 Arrate 18 – Bankoa Elg. 26 (Inf. mut.)
 Egia 34 – Txarriduna Elg. 13 (Inf.mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 28

15:45 Kenci – Ceramicas Nogales (Nazional B)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barkakua, 27

22:00 Lagunak - Mundarro (2. mailako jub.)

Ostean Lagunak (2) - Beloki (1. mailako nag.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28

16:30 Elgoibar – Ilintxa (1. erreg.)

18:30 Elgoibar – Santo Tomas Lizeoa (Jub.)

Domekia, 1

11:00 Elgoibar – Zumaia (Kad.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 8

11:30 Astigarraga Elg. – Iurena (Inf. nes.)

13:00 Txarriduna Elg. – Arrate B (Inf.mut.)

17:30 IMH Elg. – Basauri (Kad. nes.)

19:00 Alkorta Elg. – BK Liñasti (Sen.mut.)

Domekia, 9

10:30 Bankoa Elg. – Pulpo A (Inf. mut.)

12:00 Ikus Elg. – Aiala Zarautz (Kad. nes.)

Peruko ume behartsuei laguntzeko balioko du gaur gaueko kontzertu benefikoak

Expresion Sonora eta Haritz dantza taldea elkartuko ditu Miskik Herriko Antzokian

Gaur gaueko kontzertuarekin osatuko da Miski gobernuz kanpoko erakundearen azken kanpaina, Peruko ume behartsuei laguntzeko. Herriko Antzokian Expresion Sonora musika taldea eta Haritz dantza taldearen emanaldia izango dira, 22:15etik aurrera.

Miskiko Gemma Agirregomezkortak kontzertura joateko deia egin die elgoibartarrei. "Ea jendea animatzen den", adierazi dio astekari honi. Sarrerak ondo saltzen ari direla gaineratu du. Dena dela, takilan saltzeko gorde dituzte sarrera batzuk.

Ikuskizunak ordu bi inguru iraungo du. Haritz dantzari taldeak Bizkaiko dantzen saioa eskainiko du ordu erdiz, Udal Txistulari bandaren laguntzarekin. Expresión Sonorak, berriz, Eibarko Coliseoan



eskainitako erreperitorioaren antzekoa emango du.

Kontzertuan batutako diruarekin eta orain arte Miskik lortutakoarekin, Perura joko du Gemma Agirregomezkortak domekan bertan. Cuzcoko 600 ume baino

gehiagok eskolarako laguntza lortuko dute. Gemmaren hamargarren bidaia izango da Perura, eta urduri badago ere, dena ondo joatea espero du. Izan ere, udazkenean errifa gutxi saldu arren, gauzak bere onera etorri dira azkenean.



UNAI ZIARRETA
INDEPENDENTEA
LEHENDAKARI HAUTAGAIA



EMANBOTOA

Ostegunak bidaiariak izango dira martxoaren 5etik apirilaren 2ra

Lehenengo saioak Inter-raili eta Santiago Bideari egingo die errepasua

Ostegun Bidaiariak ekimena martxoaren 5ean hasiko da, Inter-rail eta Santiago Bideari buruzko esperientziakin. Gazte Informazio Guneak antolatutako egitasmoak beste bidaia batzuren berri emango du, apirilaren 2ra arte. Emanaldiak Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango dira, 20:00etatik 21:30era, eguenero (martxoaren 19an izan ezik).

Bigarren urtez antolatu dute ekimena, eta, batez ere, gazteentzako informazio praktikoa zabaldu nahi du. Bide batez, bidaien berri izango dute ikus-entzuleek.

Lehenengo emanaldian Joanes Rodrigozezek, Ion Sanchezek, Eñaut Izagirik eta Jokin Zubiaurrek jardungo dute. Inter-rail eta Santiago Bidearen inguruko azalpenak emango dituzte. Inter-raileko



bidaia txartelak non erosi eta zerbitzua- ren funtzionamendua azalduko dute. Santiago bideaz, besteak beste, aterpe- kide txartela non atera daitekeen argitu- ko dute. Afrikaren txanda hilaren 26an

izango da. 12an, berriz, Costa Rica, Pa- nama eta Mexikori buruzko saioa izango da. Apirilaren 2an, azkenik, Dolomitetara egindako furgoneta bidaiaren xehetasu- nak emango dituzte.

Korrika 16 aurkeztuko dute datorren astean



Martxoaren 6an aurkeztuko dute Korrika 16, iluntzeko 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. AEK-k elgoibartarrei dei egin die bertaratu daitezen. Edizio honetako ezaugarrien berri emateaz gain, nola parte hartu daitekeen argituko dute, eta doku- mentala ikusteko aukera izango da. “Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira!” lemapean antolatu dute Korrika. Martxoaren 26an Tuteran hasi eta apirilaren 5ean Gasteizera amaituko da. Elgoibarrera apirilaren 2an, eguena, gaueko 22:00etan hel- duko da.

Bihar Valladoliden jardungo du Haritz dantza taldeak

Haritz dantza taldea Valladoliden izango da, bihar, zapatua, Elgoibarko Udal txistulari bandako kideekin batera. Aurten Valladolideko Euskal Etxeak 25. ur- teurrena betetzen du, eta Haritz taldeak bertako ospakizunean parte hartzeko gonbita jaso du. Bestalde, Elgoibarko dantzariak urtebete egin dute otsailean Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako *Axeri Boda* ikuskizunean parte hartu zu- tenetik Bilboko Arriaga antzokian.

Emakumeentzako komunikazio tailerra

Haizea taldeak komunikazio tailerra antolatu du. Zapatu goize- tan izango da. Martxoaren 7, 14, 21 eta 28an eta apirilaren 4an izango da, Kultur Etxean, 10:00etik 14:00era. Parte hartu nahi duenak jo dezala tailerrera lehen orduan.

Bandaren 125. urteurrenaren logotipo lehiaketa

2010ean Musika Bandak 125 urte egingo dituzte, logotipo lehiaketa antolatu du. Lanak apiri- laren 30a baino lehen aurkeztu behar dira. Irabazleak 500 euro jasoko ditu.

Gastadoreekin bilera

Danborradako antolatzaileek nahi dute gastadore eskuarea he- rrikoa izatea. Gastadore izan nahi dutenei martxoaren 4an Kultur Etxeko sotoan egingo den bilera- ra agertzeko deia egin diete. Dan- borrada aurten ekainaren 6an izango da.

LANA

ESKAERA

• Emakumea, nagusiak zaintzeko, haurrak zaintzeko edo portalak garbitzeko prest.

☎ 699 609 190

• Emakumea lanerako prest garbiketa lanetarako, sukaldari laguntzaile edo haurrak eta nagusiak zaintzen. Interna egoteko aukera edo orduka.

☎ 646 235 195 / 636 362 251

• Neska gaztea garbiketa lanak edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest.

☎ 638 344 377

• Emakumea garbiketa lanetarako prest edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest.

☎ 680 808 125

• Neska gaztea lanerako eskaintzen da, arratsaldez edozein lan egiteko (etxeko lanak, garbiketak,...).

☎ 671 277 662

• Emakume euskalduna haurrak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 696 459 889

• Emakumea lanerako prest, sukaldari laguntzaile lanetarako, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko.

☎ 671 343 612 / 943 531 931

• Neska gaztea, umeak edo agureak zaintzeko prest (esperientzia).

☎ 686 420 642

• Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.

☎ 639 020 180

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 616 233 996

• Gizonezkoa zerbitzari lanak eta harrerako lanak egiteko prest. ☎ 682 261 575

• Emakumea edozein lan egiteko prest, garbiketa lanak, umezaintzaile...

☎ 616 690 415 (Marta)

• Mutil gaztea sukaldako laguntzaile edo zerbitzari lan egiteko prest.

☎ 616 690 415

• Emakumea lanerako prest. Arratsaldeetan etxeko lanak egiteko prest.

☎ 943 743 251

ESKAITZA

• Batxilergo 2.mailako gaztelera klaseak hartuko nituzke

☎ 943 584 035

• Emakumeak behar dira bitxiak, moda eta osagaiak saltzeko. Zuzeneko salmenta da.

☎ 685 787 232

• Ilea-paintzaile bat behar da, ahal bada esperientziaduna. ☎ 943 741 492

• Aste Santutik irailera arte IMH museoan jai-egunetan lan egiteko pertsona behar da. Museoa zabalik 09:00tik 14:00etara egongo da. Hilean 300 euro.

☎ 943 748 456

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUA

• Alokagai dagoen etxe baten bila nabil.

☎ 695 708 820

SALGAI

• Etxea salgai, 60m² ditu eta guztiz berriztatutur dago. 38 milioi/ 228.000 euro.

☎ 635 700 778

LOKALAK

• Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia ☎ 943 741 436

• Garajea salgai edo Alokagai. (Urasandi behean, Madala parean), 23 m² ditu. Bi autorentzako tokiak, bigarren solairuan tente egoteko altuera dauka.

☎ 637 946 954

MOTORRA

• Peugeot 405 GRI salgai, 5 ate, oso ondo zaituta, kilometro gutxi ditu, gasolina, prezio oso onean. IAT-ITV iraileran pasata.

☎ 686 879 996

BESTELAKOAK

• Pedro Mugaruza 27an umeen jostailuzko otor bat aurkitu da.

☎ 943 741 140 (Trini)

• Lur sail bat saltzen da Azkaratetik Azkoitira bidean, 2 hektarea dituen.

☎ 671 977 171

• 1GBetik 667 Mhz&DR2 SDRAMerako 2 memoria RAM saltzen ditut. Prezioa: 55 euro.

☎ 649 508 975 / 636 330 464

• Mahaigaineko ordenagailua HPE6300 Pavilion Intel 1024 250GB Media Center, Sony tft 17"-ko monitorrea eta HP PSC 1510 multifuntzio inpresora salgai.

☎ 686 879 996

<h1>IMH ELGOIBAR</h1>		
<p>DBH amaitu ondoren</p> <p>Heziketa Zikloak Erdi-Maila</p> <p>2 urtez</p> <ul style="list-style-type: none"> Mekanizazioa Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa <p>Titulua: Teknikaria</p>	<p>Batxilergoa ikasi ondoren</p> <p>Heziketa Zikloak Goi-Maila</p> <p>2 urtez + 3 urtez = eman 5ekoa!</p> <ul style="list-style-type: none"> Proiektu mekanikoen garapena Mekanizazio bidezko produkzioa Industri ekipoen mantenimendua <p>Titulua: Goi-mailako teknikaria Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza Irakaskuntza Eleanitza</p>	<p>Goi-Mailako Zikloen ondoren</p> <p>IMH Ingeniaritza Eskola</p> <p>3 urtez lan esperientzia</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin Boloniako Itunean indarrean dagoen titulu europar ofiziala <p>Titulua: Ingeniaria Ikasi eta lan txandakako metodologia Irakaskuntza eleanitza</p>
<p>INGENIARITZAKO Ate irekiak: Martxoak 7, larunbata – goizeko 11:00etan</p>		
<p>IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es</p>		



• Zorionak, **Asier**, otsailaren 18an sei urte bete dituzulako. Muxu handi bat zure familiaren partez.



• Zorionak **Mikel** asteartean lehen urtebetetzea izan zelako! Muxu bat familiakoen partez, bereziki guraso eta anaia Alexen partez.



• Zorionak **sorgintxo** gaur 2 urtertxo egiten dituzulako. Muxu pila aita, ama eta bazte ere Julenen partez.



• Zorionak **maixia** 3 urte egin dituzulako. Muxu haundi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Iker**, zure gurasoen eta anaia Gorkaren partez. Muxuak eta zazpi tarakada belarmitik.



• Zorionak, **printzesita**, zure bosgarren urtebetetzean etxekoen partez.



• Zorionak, **Duna**, atzo 2 urte bete zenituelako. Muxu handi bat amona Carmen eta attitta Joseren partez.



• Zorionak **Ane** bihar 3 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez eta bereziki Ibai eta Andren partez.



• Zorionak, atzo 18 urte egin zenituelako. Ondo pasatu, guapisima!



• Zorionak, **Andreyll** Eguaztenean 3 urte egingo dituzulako. Muxu asko gurasoen partez!!



• Zorionak, **Joni** Gaur 10 urte betetzen dituzulako. Gurasoen partez muxu asko.



• Zorionak, **Eneko eta Helene** astelehenean 4 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bat familiaren partez eta bereziki Aitanaren partez.



• Zorionak, **Amadeo eta Yeral**, otsailaren 17an 55 urte bete zenituelako eta martxoaren 1ean urtebete egingo duzulako. Muxu handi bat familiaren partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu **BARRE**neko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

AURPEGIXO PACK-A EROSTEAGATIX...

Bekainen diseinua + Goiko ezpinaren depilazioa DOAN!!!

Judith EDERGINTZA
Erosketa india: 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 467742118

- 88 €** - *Lifting kroma*
- 24 €** - *Azal sensiblerantzako kit-a*
- 54 €** - *Oxigenatzailea*
- 32 €** - *Adinaren aurkakoa*
- 32 €** - *Azal mota guztietarako*
- 30 €** - *Garbiketa kit-a*

OKINDEGIA

1 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 27 Ibañez
- 28 Garitaonaindia
- 1 Garitaonaindia
- 2 Etxeberria (Santa Ana)
- 3 Fernandez
- 4 Yudego
- 5 Zabaleta
- 6 Etxeberria (Errosario)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



27 barixakua

Musika

22:15 Miskiren aldeko kontzertua

Haritz dantza taldeak eta Expresion Sonora musika taldeak eskainiko. Herriko Antzokian.

28 zapatua

Feria

9:00 Hileko azken zapatuko feria

Udalak eta Debemenek antolatuta, hileroko feria egingo da. Nafarroa Plazan eta Plaza txikian.

Kirola

10:30 Tenis eguna

40-15 elkarteak antolatuta, tenis eguna izango da egun guztian zehar. IMHko tenis pistan

3 martitzena

Literatura

18:00 Literatura tailerra

Haizeak antolatuta, *La muerte de Ricardo Reis* liburua landuko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

5 eguena

Aisialdia

19:00 Ostegun bidaiariak
Gazte Informazio Buelgoak antolatuta, Inter Raila eta Santiagoko biderei gurutuko hitzaldia. Kultur Etxeko hitzaldi

6 barixakua

Korrika

19:00 Korrikaren aurkezpena
AEK euskaltegiak Korrikaren aurkezpena egingo du Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Zine forum-a

22:00 'Melisa P'

Haizeak antolatuta, *Melisa P* filma. Hizlaria Eskarne Larrinaga. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



**ESKERRIK ASKO
ETORTZEAGATIK,
EGUNDOKO
FESTA IZAN ZEN!**



GAZTELEKUKO EKINTZAK



**HEZITZAILEEN
TOPAKETA BATZUK
DIRELA ETA,
OTSAILAREN 27an
ETA 28an
GAZTELEKUA ITXITA
EGONGO DA.**

«Valkiria»

28, zapatua: 19:00/22:15
1, domeka: 19:00
2, astelehena: 21:30

«Winx club:

erreinu galduaren sekretua»
1, domeka: 16:30

«Mil clavos»

Ongarri zine-kluba
5, eguena: 21:30



MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

4 EGUAZTENA

HITZALDIA

19:00 Bikote harremanak

Berdintasun zerbitzuak antolatuta, "Berdintasuna eta egonkortasuna bikote harremanetan" hitzaldia eskainiko du Arantxa Alvarez psikologo eta pedagogoak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



5 EGUENA

IKUSKIZUNA

17:30 Ipuin ez sexistak

Haurrentzako ipuin kontalaria, Kultur Etxeko sotoan.

HITZALDIA

19:30 Euskal Herriko mugimendu feministaren bilakaera

Hizlaria: Edurne Epelde, Emagin ikerketa zentro feministako ikerlaria. Kultur Etxeko sotoan.



6 BARIXAKUA

TAILERRA

19:00 Emakumeen jabekuntzarako jendarte trebetasuna

Idoia Lekue irakasleak eskainiko du tailerra, Kultur Etxeko sotoan. Dohainik da, eta izena arreta bulegoan eman daiteke.

8 DOMEKA

KONZENTRAZIOA

19:00 Parekidetasunaren bidean, feminismoa

Plaza Handian

MONOLOGOAK

19:45 Kultur Etxeko sotoan



13 BARIXAKUA

TAILERRA

18:00 Emakumeentzako autodefentsa

Luis Agirregomezkortak eskainiko du tailerra, kiroldegian. Arreta bulegoan edo kiroldegian bertan eman daiteke izena.



EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA
OFIZIALA
2009/2010

MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 26tik martxoaren 18ra

HIZKUNTZAK:
ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA
ETA INGELESA

EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA
San Inazio, 1
20600 Ibaeta

Matrikula egun nahi dutenek Internetaz bakarrik egun ahal izango dute
www.ackeuskaadi.net orrian. Argibide gehiago: www.ackeuskaadi.net orrian
edo 943 200 618 telefonoz



ECANIZADOS
S.COOP
BUKATU.

OLASO Poligono Industrialia - Olaso kale, 6
66 atea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Htp: www.bukatu.es

Olaiia

e s t e t i k a

Laser depilazioa

San Inazio, 4 behea - Tel.: 943 74 27 25

**RADIOFREKUENTZIA
DERMOKONTROLATUA
ESKAINITZA BEREZIAK!**

TRATAMENDUAK:

- Zelulitis ezabapena
- Gorputzaren birmoldaketa
- Liposukzio ondorengo tratamendua
 - Gaztetzeko
 - Lifting efektua
- Eye-Perfect tratamendua
- Estria (ildaska) tratamendua
- Zona abdominal zehatzerako tratamendua
 - Gorputzaren errealfirmazioa
 - Aknearen aurkako tratamendua



Gure berbak

Aditz trinkuak: ERUAN aditza

Forma desberdiñak ditu aditz honek han eta hemen: eruan, eroan, eraman... Guri dagokigunez, ERUAN da erabiltzen dogun forma (batzuetan ERUN ere ahoskatzen da). Mutriku aldian, berriz, ERAMAN ere esaten da.

Eibarren, ERUAN erabiltzen da aditz perifrastiko moduan, baiña aditza jokatzen hasita, desberdintasun nabarmen bat badago hango aditzaren aldian: guk DARUAT erabiltzen dogun bezela, han DAROIAT erabiltzen debe, JUAN aditzarekin bezelatsu: guk GUAZ, eibartarrak GOIAZ.

- Hona ERUAN aditzaren forma arrunte-nak:

♦ Neutra: *daruat, darua, daruagu, darua-zu, daruazue, darue.*

♦ Alokutiboa (giz.): *jaruat, daruak, jaruak, jaruagu, jaruek.*

♦ Alokutiboa (emak.): *jaronat, daruan, jaruan, jaronagu, jaruen.*

- Hona pluralgilledunak:

♦ Neutra: *daruadaz, daruaz, daruaguz, daruazuz, daruazuez, daruez.*

♦ Alokutiboa (giz.): *jaruadaz, daruaz, jaruaz, jaruaguz, jaruez.*

♦ Alokutiboa (emak.): *jaronadaz, daronaz, jaronaz, jaronaguz, jaronez.*

- Pare bat adibide ERUAN-ekin:

- *Ni ez naiz gogoratzen noiz etorri ziran, baiña, hamen urte batzuk zaruazela, bai.*
- *Izetez, Aranbelzkua nok, baiña hemen jaruadaz berrogeta hamaika urte ezkontuta.*

Ahoskeran, *jaruadaz* hori *jaruaz* bihurtzen da sarritan, bokalarteko -d- hori erori ostian.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1969

Aste honetako erretratu zaharra Arantza Berasaluzek laga digu. Zeleta base-
rrian aterata dago erretratu. Garai hartan, Zeleta baserriko emakumeak esnea bat-
natzera jaisten ziren herrira, astoarekin. Kaleko buelta egin ondoren, baserrira itzul-
tzen ziren herriko kontuak eta albisteak kontatzera. Ikus ditzagun erretratuan azal-
tzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Arrate Berasaluze, Begoña San Martin (†), Arantza Bera-
saluze, Jenara Sarasketa "Erreketa" (†), Jose Antonio Berasaluze, Bittori Bernedo
(†) eta Maria Iriondo "Aisti".



ESKERTZA

JOSE IGNACIO IRIONDO ARRILLAGA

2009ko otsailaren 17an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Patxi López
Lehendakari hautagaia

Patxi Lehendakari

Zeuk erabaki



www.socialistasvascos.com



martxoaren 1ean

Urrezko botzka ezker abertzalea



oztopoen gainetik INDEPENDENTZIAri ateak ireki!